



**Domu Santu egunean hilerria lorez jantzita.**– Azaroaren lehena iristearekin batera herritar asko hurbildu zen Lasarte-Oriako hilerria. Santa Barbara azpiko gune ederrean kokatuta dago herriko hilerria eta Santu Guztien egunez kolore berezi, bizi eta polita hartzen du. Hildakoak omentzeko eta haietaz gogoratzeko eguna da. Urteko gainontzeko egunetan baino dotoreago izaten da hilerria egun hauetan, hildakoek senitatekoen bisita gehiago jasotzen baitituzte eta jende ugari ibiltzen baita bertan. Hildakoak oroitzeko eta loreak jartzeko ohitura ez da galdu eta herritar asko ibili da hilobiak garbitu, txukundu eta lore-sortak jartzten. Askok paseatzu egiten zuten hilerriarainoko bidea, Zabaleta auzoan barrena. Hilerriaren krabelinak, gladiolok, margaritik eta arrosak ikusten dira gehienbat lore-saltzaileek adierazi dutenaren arabera. Izan ere, haientzat urteko egunik garrantzitsuenetakoa izaten da. Aste osoan zehar gogor egiten dute lan egun handirako prestaketak egin ez eta Santu Guztien egunean bertan Okendo Plazan eta hilerriko atearen ere jarri dituzte postuak. Espero baino gehiago saldu zutela azpimarratu zuten, pozik ziren saltzaileak, baina gehiago saldu duten urteak ere izan omen dira.

### 3 INAUTERIAK Musika izango da 2014ko inauterietako gaia

Udalak inauterietan parte hartzen duten konpartsa eta taldeekin egin zuten bilera eta bertan aukeratu zen 2014rako Musika gaia. Honakoa hautatzeko herritarrek egindako proposamenak hartu zituzten kontutan eta gai zabalaz izanda aukera asko ematen dituela baloratu zuten.

### 5 ERREPORTAJEA Amaia eta Aitor udal langile berriak

Aitor Carrasco duela hilabete hasi zen lanean Udal liburutegian eta Amaia Carcamo ekaina bukaeratik dago kontu-hartze sailean Gureak-eko bi langile hauek gazteen egoeraren normalizazioan pausoak emateko asmoz sortutako programari esker iritsi dira.

### 6 FUTBOLA Ostadarreko infantil txikiak eta Txeseko erregionalek porrot

Eregionalen 1. mailan Texas Lasartearrak 1-4 galdu zuen larunbat arratsaldean Michelinen Eas 08ren aurka. Lehen zati kaxkarrak bukaerako emaitza baldintzatu zuten. Ostadarren Infantil Txikiak ere ezin izan zuten Real Sociedad handiaren indar erakustaldia- ren aurrean ezertxo ere egin.



**Opartza heraldika eguberriari**

: Famili armarrria  
: Zuhaitz genealogikoak:  
Pergamino, kartulina,  
poliuretanoan, portzelanaz  
zein egurrean landuak.

**Blasón**  
Heraldika Tailerra  
www.berriheraldika.com  
blason@berriheraldika.com

San Lorenzo 6, Donostia  
943 43 38 81

**Estuz eginiko lanak**

**CARNICERÍA**  
**ARANZABAL**

**HARATEGIA**

**BERRIA**

Txekor hanburgesa  
7,50 €/kiloa.  
Kilo batekin,  
oilasko bat OPARI

Jaizkibel plaza 11  
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

## Adituak dio

## Talaiatik



## Julen Ollokiegi

**F**inlandia herrialde zoragarria munduko ekonomiari konpetitiboena, korrupzio indizek txikiena eta irakaskuntza sistemarik arrakastatsuenak. Analfabetismoa %0, ikasleen %71 unibertsitatean eta garrantzitsuenak, gizarte-baloretik inportanteena zintzo eta ondardutza. Wert espainiar ministrok nonbait entzun zuten Aurora Borealaren argeipen sistema ona zutela eta... ezarriko duen LOMCE legea hanga irakaskuntzan oinarritu omen.

Omen... baina izenak izana behar, eta lege honek ez du bere baitan hanga irakaskuntzarekin zerikusirik. Han irakaskuntza politikatik at geratzen da guztiz, gizartearen oinarri da eta independenteki gestioatzen da; hezkuntzan inbetsio handiak egiten dira eta irakasketa gizarte mailan pertsona miresleki dira. Dena berdin han eta hemen. Ja! Inposatu nahi duen legeak oinarri politiko hutsa du, eta PP-ren sostengua besterik ez. Krisia aitzaki hartuta murrizketak arlo guztietan: osasuna, gizarte, kultura. Hezkuntza jasanadako murrizketen ondorioz langile eta medio gutxiago lanerako eta orain falta gurena: LOMCE.

Nelson Mandelak zioen "beti dirudi ezinezko, lortzen den arte". Halaxe izan da euskaraz ikasi ahal izatea gure herrian ere. Lasarte-Oria 1992an, %80ak OHO bukatzean ez zuen euskara menperatzen. Gure gurasoei esan baliete dena euskaraz ikastera iritsiko ginela! Medikura joan eta euskaraz artatuko gintuela! Ez luke garai haietan inork sinetsiko.

Lege honen aplikazioak ondorio tamalgarriak ekarriko lizkiok herrian urteetan egindako lanari. Euskaraz bat gehiago izatera pasako litzateke, erlijioa edo matematikaren pareko, ikasketak gaztelaz. Bidalikotz nitzuke bai Japoniako murrerara ikasi behar dena ikastera! "Hezkuntza da Mundua aldatzeko armarik indartsuena" zioen Mandelak, eta beraiet ere badakite. Cuk ere, zaindu dezagun gurea.

## Hezkuntzan mobilizazioak

**A**zken asteetan hainbat izan dira Estatuak onartu berri duen LOMCE legearen kontrako ekimenak gurean. Manifestazio jendetsuak gain, ikasle eta irakasle sektorean deitutako greba eta lan geldialdiekin bat egin dute. Noski, Lasarte-Oriako ikasle, irakasle eta guraso komunitateak aktiboki parte hartu nahi izan du aipatutako mobilizazioetan.

Izan ere, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak esan Erkidegoan ez dela lege berria aplikatuko, hezkuntza komunitateak LOMCEa ezarrita gertatzen ari diren murrizketak salatu nahi izan dituzte.

LOMCE lege honen oinarrian honakoak; gaztelania izango litzateke nagusi, euskara espezialitate ikasgaitzat hartzen baita; erkidegoek baldinok ezarriko litzateke ikasgaiak ezar-

tzearen aukera, honakoa Espainiako gobernuaren eskutan geratzen da; erlijioa espezialitate ikasgai litzateke eta batz bezako notan kontutan izango da; selektibitate desagerrak eta ziklo batetik bestera pasatzeko azterketak ezartzen dira hala nola, unibertsitateak sarbide azterketak egin ahal izango dituzte; Lanbide heziketan hasle adina aurrerata DBHn aurrera egin ezin duen ikasle oinarriko lanbide heziketan izena eman ahal izango dute. Irakasleek pairatuko dituzte aldaketak, gobernuak izendatuko dituzte eskoletako zuzendariak eta horretarako irakasleek azterketa berezi bat gaitu beharko dute; irakasleen lan baldintzak aldatuko dituzte ere, funtzionarioa zein ikasgaitza eta zer-nolako lanetan jardun beharko duen molda dezake administrazioak eta lanordua gehituko zaizkie lege berria aplikatuz gero.

## Hitz eta pitz

## Zer iritzi duzu hezkuntza erreformen inguruan?



## Carlos Aizpuru

Zalantzan jartzen dut benetan LOMCEren kontrako jendearen kopurua zenbatekoa den, eta ez inertzia hutesze protesta egiten duenarena. Legeak bere alde onak baditu: kanpobaluaioek eta ikasle banaketa goiztiaragoek emaitza onak eman dituzte estatu askotan. Hala ere, bateratze prozesua urrunegi eramanen salatu direla esan beharra dago.



## Gorka Mendizabal

Murrizketak Osasuna eta Hezkuntza bezalako alorretan egitea ez zait ongi iruditzen. Hezkuntza politizatu da goela uste dut gainera, agintaria iristen denak dekretazioen bidez aldatzen du legea, horrek dakartzan ondorio gutxiak. Ez dute eztabaidatzen, ez dago ezberdinen arteko akordioarik. Aldatu eta kito. Ez da morala, baina egin da legea eta bozkek alde dauzkatela.



## Belen Insausti

Egia da Osasuna eta Hezkuntza garestiak direla, baina gizearteen ezinbesteko zutabeak iruditzen zaizkit, hortik ezin da inolaz murriztu. Gudetan eta defentsan murriztu dezakete esate baterako. Ez naiz gai honetan aditua, baina ziur nago alor horietan murriztu gizearteen eragin gutxiago izango lukeela. Hezkuntza eta Osasunaren murrizte, azkenean, garesti iritelen da.



## Beñat Iturralde

Ez zait ongi iruditzen Hezkuntzan murrizketak egitea. Gizearteen etorkizuna Hezkuntzan oinarritzen da. Gure kultura ezberdina den alditik, Eusko Herrian Hezkuntza eredu propio bat bultzatu beharra dagoela uste dut. Antropologia ikaslea naiz eta esan beharra daukat aniztasuna positiboa dela eta Hezkuntzaitik balio horiek bultzatzea beharrezkoa iruditzen zaidala.

## Iruditzen



Oriako eskolako mutilen gela 1959. urtean.

## 53ko legea

Hezkuntza lege ezberdinak izan dira. Esterako 1959ko Oriako ikasle hauen garaian, 1939an lehen hezkuntza arautzeko egindako legean oinarritutako hezkuntza jasotzen zuten, honen ardatzak: aberria, erlijio katolikoaren doktrinak eta bereziki gaztelera hizkuntza bakarraren ezarpena. Lehen Hezkuntza hau derrigorrezkoa zen 6-12 urte bitarteko gazteentzat, doakoa eta sexuaren arabera bereizitua. 1953an osatu zen aurreko legea bigarren hezkuntzarako. Ikasleek hau burutu ahal izateko azterketa bat gaitu behar zuten eta Batxilergoa egiteko, errebalidatu azterketa gaitiditu.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea

LASARTE-ORIA  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea

Gipuzkoako Foru Erkidegoa  
Euskara Departamentua

## Argitaratzailea:

Titakun Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txinbarri

## Eredakzioa:

Nerea Ezagrite, Maider

Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Aritzeta Artola

publizitatea@titakun.com

administrazioa@titakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Zabala, Mañu Arribas,

Oñazola, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpirtate,

Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amador

## INAUTERIAK

## Musika Inauterietako gaia

## Herritarrek egindako proposamenetatik aukeratu zen gaia

Udalak inauterietan parte hartzen duten konpartsa eta taldeekin egin zuen bilera asteartean eta bertan aukeratu zen 2014rako Musika gaia. Honakoa hautatzeko herritarrek egindako proposamenak hartu zituzten kontutan eta gai zabalba denez, aukera asko ematen dituela baloratu zen.



Bileran zortzi talde eta konpartsetako kideak izan ziren udal ordezkariak.

## TXINTXARRI

Udalak inauterietan parte hartzen duten talde eta konpartsekin egin zuen bilera pasa den asteartean Manuel Lekuona kultur-etxean eta honetan datozen inauterietako gaia aukeratu zen.

Herritarrek Internet bidez edo udal postontzietan utzitako 98 proposamenak aztertzen zituzten eta denen artean gehiengoaren gustakoa izan zen gaia hautatu zen.

Horrela izanda, Musika gaitzat hartzea erabaki zuten, "gai zabalba eta aukera asko eskaintzen dituelako" aipatzen zuten parte hartzaileek "musika taldez, musika estiloz, musika instrumentuz jan-

tzi nahi duenak ere aukera dauka horrela".

## Parte hartze ona

Taxio Arrizabalaga zinegotziak gidatutako bileran, positiboki baloratu zuen herritarren parte hartzea. Hala ere, zinegotziak azpimarratu zuenez, gai batzuen artean antzekotasun handiak zeuden eta hauek taldeka sailkatu ziren.

Gehien aipatutako gai multzoak: Ipuinak, Musika, Munduko kulturak, Animakia, Zirkoa eta Marrazki bizidunak.

Udalak eskuragarri jarri nahi izan du bere webgunean gai zerrenda osoa herritarrek prozesua jarrai dezaten.

Gaia aukeratu, garaiz mozorroekin hasteko aukera dagoela aipatu zuten konpartsa eta taldeetako kideek.

Helburua ahalik eta herritar gehien mozorrotzea eta kalera ateratzea da horregatik "mozorroan denbora eta diru pixkat gastatu nahi duenak aukera dauka oso mozorro landua egiteko eta ezer gatzatu nahi duenak, erraz egiteko moduko mozorroak presta ditzake musika gaia onarri hartuta, baita azken momentukoak ere erraz izan daitezke egiten".

Hurrengo bilera utarritalean egingo dute programa zehazteko. Hilabete honetan zehar taldeek diru laguntzak eskatzeko aukera izango dute.

## JAIALDIA

## Akordeoi doinuak larunbatean

Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako Akordeoi jaialdia izango da larunbatean 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean. Hamargarren edizio honetan Jokin Goenaga herritarra, Iñaki Dieguez irundarra eta Arrigo Tomasi eta Daniel Levy bikotea arituko dira Zero Setterekin batera.

Emanaldia doakoa izango da 16 urteetik berakoentzat eta gainontzekoek sarrerak hiru eurotan eskuratu ahal izango dituzte. Hauek dagoeneko salgai daude Manuel Lekuonan eta [www.lasarteoriarean.eu](http://www.lasarteoriarean.eu) webgunean.

## IPIUINA

## Kontu Kantoirekin aho zabalik

Manuel Lekuonako haur liburuetgia lepo bete zuten 6 eta 8 urte arteko haurrek astearteko arratsalde eurtsuan. Hauek hamaika abentura entzun eta bizitzeko aukera izan zute Kontu Kantoiko Cesar eta Bearen eskutik.

Hala nola, piraten ontzian igo eta bale beretzat bi ezagutu zuten haurrek. Abesten ere jarri zituzten hainbat momentutan. Asko gozatu zuten bertaratuakoei ipuinaren orduko bigarren saioan. Azaroaren 12an Pello Añorga arituko da kontari.



## IKASTAROA

## Jantzi tradizionalak egiteko aukera

Ttakunek antolatzen duen jantzi tradizionalen ikastaroa azaroan ere egiteko aukera izango da.

Ikastaroa oso harrera ona izaten du urtero eta eskaerari erantzun nahian urrian egindakoaz gain, azaroan ere egingo da. Honakoa astearte eta ostegunetan egingo da 15:00etatik 17:00etara Jone Artolaren gidaritzapean.

Bihar hasiko da ikastaro berri hau eta oraindik izena emateko aukera dago Ttakuneko bulegotik pasata edo 943 37 14 48 telefonora deituta.

## AMARAUN

## Magia ikastaroa ludotekan

Magia ikastaroa antolatu da Amaraun Ludotekan HH5, LH1 eta LH2ko umeentzat. Honakoa azaroaren 13an hasiko da eta abenduaren 11ean egingo dute azken saioa. Asteazkenetan izango dira saioak 17:45etik 19:15ak arte.

Matrikula Ttakuneko bazkideentzat 13 eurokoa izango da eta bazkide ez direnek 16 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea bihurtik aurrera egin ahal izango da Ttakuneko bulegoan.

## PSE-EE

## Lan egutegi ofizialaren alde

Estatuoko jai egun ofizialak 2014ko lan egutegian errespetatzeko eskaera egingo du PSE-EEK datoren udalbatzarrean Jesus Zabaloek jakitera eman duenez. Donostiako epitegiak ezabatu berri du, Donostiako udalak ez daukala Estatuoko jai egun ofizialak beste egun batzuetara mugitzea ahalmenik hau da, urriaren 12a, urriak 25 eta abenduaren 6a.

Ezbaeznak azpimarratzen du udalari soilik dago kiola udalerriko jai eguna izendatzea.

Lasarte-Oriako udalak Donostiakoaren antzeria egin zuen iaizko lan egutegia eta beraz Zabaloek dio, "justuziak arazoia eman digu eta bete beharko da honek esandakoa 2014ko lan egutegian".

Gogoratu nahi izan du talde sozialistak bere garaian salaketa jarri zuela alkatetzako dekretuz hartutako erabakien aurrean eta orain justiziaren babesa jaso dutela. Hortaz, udalbatzarrean 2014ko lan egutegi ofizialaren arabera izan beharko duela eskatuko du.

## Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari babesa

ERRIGORA ekimenarekin bat egin dute herriko hainbat elkarte, tartean Ttakunek. Auzolanean, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartzeko asmoz, eremu horetakoak propio diren produktuak Euskal Herriko plazan jarri nahi ditu.

Merkatu globalizatuak kompetentzia baldintza gogorretara behartzen ditu bertako ekoizleak. Aldi berean "zona no vascofona"-ko euskalgintzari ekarpena egin nahian bultzada ekonomikoa ematea ere badu helburua.

"Nafar Hegoaldeko uzta; euskarari puzka" kanpainara AEK, Sortzen eta Iklosten Elkarteak eta Zazpiak Bat Hareman Sarearen elkarlanean emaitza da. 50 euroren truke Nafarroa hegoaldeko produktuetako saskia jaso daiteke; kalitateko produktuak, bertan ekoiztutako eta nekazarien lana aitortzen dutenak.

Merkatuko prezio berean eskaintzen dira produktuak,



50 euroren truke hau da eskuratu daitekeen produktu sorta.

baina desberdintasun batekin: %25 euskarari bideratuko bako herritar askoren lan boluntarioari esker.

Kanpainaren honenkin biltzen den dirua Lososako ikastolara, "Euskarak bizi eta ikasi" herri ekimenera eta Erriberako helduen euskalduntzea mantendu eta zabaltzera bideratuko da.

Lasarte-Oriako saski honen eskaera egin daiteke azaroaren 14a bitartean AEK Munterri euskaltegian, Land-

berri BHIn eta Ttakunen. Ordainketa ere eskaerarekin batera egin behar da.

Produktuak zeintzuk diren ikusteko Jalgin izango da aukera, baina han ez da eskaerarik jasoko.

Ondoren, produktu saskiak eskaera egindako lekuan jaso beharko dituzte herritarrek azaroko izan asteetan. Udaberriaren azken da bigarren sorta erosteko aukera garaiko produktuekin.

# Elkarlanean egindako ordenantza fiskalak

## Udal zerga eta tasak KPI-aren %1,2 igoko dira aurreko urtetako irizpidea jarraituz

**Ogasun batzordeak dagoeneko 2014rako ordenantza fiskalen zirriborroa aurkeztu die gainontzeko alderdiei. Zirriborro honetan jasotako puntu nagusiak aurkezteko agerrialdia egin zuten Estitxu Alkorta batzorde buruak. Honen esanetan berrikuntza nagusia arlo desberdinetako udal ordetzariekiko zirriborroa egiteko egindako elkarlana izan da. Hirugarren urtez KPI-a igoko da udal tasa eta zergetan.**

Maidar AZURMENDI

**E**stitxu Alkorta Ogasun batzorde buruak aurkeztu zituen ordenantza fiskal berriak. Hauek aztertzeko denbora izan dute gainontzeko alderdiek eta datozen egunetan ez ohiko udalbatzorean onartuko dira.

Hirugarren urtez udalak erabaki du KPI-aren %1,2 baino ez direla igoko udal zerga eta tasa guztiak. Krisi egoeraren baitan hartutako erabakia izan zen hau eta mantentzearen alde egin du Ogasun batzordeak aurturien Estitxu Alkortak azpimarratu zuenez.

IBI-aren kasuan desberdina dela azaldu duen Alkortak izan ere, ez dago udalaren esku "Aldundiak balore katasrala ezartzen du urtero eta horri gehitu izan zaio udal tasa hau igotzea adosten zuenaz, izaztik muga KPIaren %1,2 hori ez gainditzea izan da irizpidea".

### Elkarlana

Zirriborro hau egiteko duela bost hilabete "parte hartze prozesu bat jarri genuen mar txan lehenengo aldiz udaleko arlo ezberdinetako teknikariak elkartuz" azpimarratu zuten batzorde buruak. Elkarlan honetatik atera da zirriborroa eta "alde teknikoetik gehiengoaren babesa duten ordenantzak dira".

Jan ona egin dela irizten du Alkortak eta oso pozik azaldu zen lortutako zirriborroarekin. "Denentzako, udaleko atal guztietarako marko bat sortu dugu". Oinarritziko bi esparrutan gertatu da hau baten artean.

Batetik, salbuespen eta hobari ordenantza berria landu da.

Orain arte arlo bakoitzak "erabakitzen zuten zein irizpideren araberako salbuespen edo hobariak egin", orain arlo guztietik berdinak dituzte. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden familiek udal zerga



Estitxu Alkorta Ogasun batzorde buruak aurkeztu zuen 2014rako Ordenantzen zirriborroa.

eta tasak ordaintzetik salbuespenak egon ahal izango dira, edo hobaria izango dute %25, %50 edo %75. Familia hauen egoera aztertu eta baloratzeako ardura Gizarte Zerbitzuek izango dute beti.

Bestalde udal instalazioak erabiltzeko prezio publiko bateratuko ezarri dira lehenengo aldiz.

### Prezio publikoa

Prezio sistema bat ezarri da Udaletxe berriko gelak,

Manuel Lekuonoakoak, Villa Mirentxu eta Gaztelekukoak alokatzeko.

Horretaz gain ekitaldiaren ezaugarri eta eskatzen duen erakundearen araberako hainbat salbuespen jarri direla azaldu zuten zinegotziak "eta hauen araberako doakoak izango da erabilera hori zenbait kasuetan". Hileria herriko taldeek udal instalazioak erabiltzen publikorako eskatzen badituzte, ez dute alokairurik ordaindu beharko.

Azkenik, ostalariekiko egindako bileren ondorioz, euren egiten zuten eskaerari erantzun nahi izan da "terrazak jartzeagatik urteko tasa bat jarri da %20 murriztua". Hala ere, mantentzen dira hiruhilabeteko tasa eta udal hilabeteko ordaintzeko aukera.

Emendakinak aurkezteko epea gaindituta, datozen egunetan egin daitekeen ez ohiko udalbatzaraan ordenantza fiskal berrien onartzea espero du.

## Bertiz eta Amaiurrera irteera Oinatzekin

**O**inatz taldeak larunbaterako, azaroaren 9an irteera antolatu du. Honetan parte hartzen dutenek Bertizeko parkera joateko aukera izango dute, baita Amaiurrera ere.

Nafarroan kokatuta dagoen Bertiz parke naturalera joango dira lehenengo parte hartzaileak. Honetan parke botanikoa ikusi eta mendi ibilbide erraz bat egingo dute ondoren.

Bertizko Jaurerria XIV. mendekoa da eta ordutik belaualdi belduak oinordetan pasa zen 1884 urtera arte.

Urte horretan, Pedro Andres de Oreizta nabartearrak jaurerria orosi eta bere semeari eman zion, Felipe Oteizari 1898an. Ondoren Pedro Ziga Mayo eta Dorotea Fernandezek erosi zuten eta hainbat berriztatze lan egin zituzten, garaiko Art Nouveau estiloak. Hauek izan ziren azken jabeak izan ere, euren utzi zuten jaurerria Nafarroako Foru Diputazioaren esku.

Baldintza bakarra eremua zegoen bezala zaindu eta mantentzea izan zen.

Horrela bertan 4 hektareako lorategi botanikoa ederra aurkitzen dute bisitariak, garai bateko jaunen etxe eta lorategia eta haritzak eta pagoak nagusi diren oihan zabaletatik mendi ibilbide desberdinak. Natur parkea izendatua izan zen 1984. urtean. Eremuak aukera asko eskaintzen ditu bisitariarentzat. Parke botanikoa ikusteko 3 euroko sarre- rako ordaindu beharko da. Doan sartuko dira umeak, langabatuak eta 65 urteko geroak. Ordaintzea bertan egingo dute parte hartzaileak.

Bertizen bazkalduko dute, bakoitzak bere bazkaria etxetik eramanda. Hartara denbora gehiago izango da arratsaldean Amaiurrera herra gerturatu ahal izateko.

### Azken erresistentzia

Arratsaldean Amaiurrera bisitariak XVI. mendean bertan egi-



Bertizko parke botanikoa ikusiko ahal izango da lehenengo eta ondoren ibilbidea egingo da parkera hobeto ezagutzeko.

ten ziren biltzarrek sarrerako arku eta jaurerri-arkitekturak etxe dotoreak utzi ditu bertan, esaterako, Arretxea jauregia eta Arriada etxea. Herriaren sarbidea zaharberritutako errota bat ere dago mar txan.

Honetatik ibilbide bat hasten da, 1,5 kilometroko, presa eta ubidea zeharkatu eta Gaztelu mendiko monolito mitikora iristen da.

Honek Amaiur azken erresistentzia gunea izan zela gogoratu du Nafarroa konkistatu eta Gaztelako koroan sartu zenean XVI. mendean. Gainera indusketa arkeologikoei azaleratu dituzte desagertutako gazteluaren zenbait dorre.

### Izena ematea

Izteera honetan parte hartzeko

deia luzatzen diete herritarrei Oinatz taldekoek.

Ohi bezala, aurrez izena eman beharko da Ttukuneko bulegotik pasata.

Autobusa aterako balitz 10 euro ordaindu beharko dira eta bestela kotxeak antolatuko dira ibilaldia egin nahi duten guztien artean. Hitzordua azaroaren 9an, 10:00etan Jalgin izango da.

# Lan munduan normalizazioaren bila

## Gureak -eko Aitor Carrasco eta Amaia Carcamo Lasarte-Oriako Udalean ari dira lanean

Gureak enpresan lanean dauden gazteen gizarteratzea eta gazteen egoeraren normalizazioan pausokak emateko asmoz lanbide programa du martxan. Honen bitartez tailerretan lan egiten duten gazteek, ingurunea aldatu eta jende berria ezagutu dezakete. Lasarte-Oriako Udalak programa honetaz baliatuz bi gazteri lan egiteko aukera eskaini die. Aitor Carrasco duela hilabete hasi zen lanean Udal liburutegian eta Amaia Carcamo ekaina bukaeratik dago kontu-hartze sailean. Haiekin eta haien lankideekin bildu gara programari buruz eta egiten duten lanari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

**A**itor Carrasco eta Amaia Carcamo gazteak Lasarte-Oriako Udalean ari dira lanean. Ez ohiko langileak dira, urritasuna dute. Gureak taldeko kideak dira eta honek duen lanbide programari esker, tailerra utzi eta lan inguru normalizatu batera egokitu dira.

Aitor duela hilabete hasi zen lanean Udal liburutegian eta lagungarri gisa, hezitzailea du, Ester Bastida. Honek bere zereginak azaldu eta lanean egokitzen laguntzen dio. Amaiak, berriz, hilabete batzuk daramatza kontu-hartze sailean eta ez du dagoeneko bere zereginetan laguntzarik behar, horregatik jarraipen prozesuan dago.

Ester Bastida hezitzaileak Gureak taldearen lanbide programa honen nondik norakoak azaldu dizkigu, "16 urtera arte ikastolan daude eta integratuta daude. Baina adin horretatik aurrera ez dago aukera askorik. Horregatik, haien integrazioa beste maila batzuetan lortzeko, aisia edo lanean horelako programak daude".

Honetarako, prozesu bat jarraitzen da. "Tailerren ekoizpen lineal batean daude lanean. Haiek lana aldatzea eskatzen duen lan desberdinak egiteko edo inguru eta pertsona berriak ezagutzeko asmoarekin," aipatu digu.

Programan sartzen diren gazteek bi hilabeteo heziketa

jasotzen dute. "Gero bakoitzak aukeratzeko duen zein lan egin nahi duen. Edo zuzer ez badaude lana non egin dezakeen aztertzen da beti ere, gustuko dutena kontuan izanik."

Gazteek 900 bat ordu egin behar dituzte programa honen baitan. Ordu hauek goizez betetzen dituzte eta arratsaldean, berri, denbora librea dute edo tailererra bueltatzen dira.

Honela, bulego lanak edo zerbitzu lanak egiten dituzela adierazi digu Esterrek. "Hala nola, liburutegian edo bulegoan egiten dute lan edo beste batzuk, laguntzaile lanetan egoten dira jantokietan edo garbiketarik egiten, eskolatan... Laguntzaile postuak dira, bertakoek lana arintzeko zereginak egiten dituzte".

Honetaz gain, azaldu digunez, lan hauetara egokitzeko hainbat hildabeteetan pertsona bat egoten da haien laguntzen. "Lanean ez ezik, etxetik lantokirako bidean ere laguntzen dute. Behin egokitzapen hori eginda, pixkanaka bakarrik uzten dituzte. Beharrez arabe-ra, ez daukagu gure postua uzten dugu eta bere lanaren jarraipena egiten da. Hamabost egunean behin edo hilabetera, bere lana gainbegiratzera dator pertsona bat".

### Liburu eta DVD artea

Aitor Carrasco herritarra 20 urtetatik dago Gureak-en



Aitor Carrasco Udal liburutegian dago lanean. Liburu, egunkari eta DVD artean ibiltzen da egunero eta pozik agertzen da lanarekin.

lanean. Bertan sukalde edo ur-berogailuentzako zatiak egiten ditu.

Duela bi urte bulego lana egitea aukeratu zuen eta SIT fabrikari, Martutenen egon zen. "Urte bat praktika moduan eta bigarrena bakarrik". Baina krisia dela eta, bere lanpostua murriztu zuten eta beste lantoki bat bilatu zioten, Manuel Lekuona kulturetoko liburutegia.

Manuel Lekuonako langile asko aurretik ezagutzen zituzenez, ez zaio zaila egin bertan bertatzea eta bere lan berriarekin oso pozik dagoela ere adierazi digu. "Oso pozik nago lanarekin eta arduradunekin eta lankideekin".

Izaskun Urđanpileta liburuzainak azpimarratu duenez, ederki egokitu da Aitor bere lanera. "Hilabete bat darama hemen urriaren 4ean hasi zen. Asko ikasi du eta asko laguntzen digu".

Bere zereginak "egunkariak bildu, hauek grapatu, liburu eta DVDentzat datagailuak prestatu, liburuak eta DVDak alfabetikoki ordenatu jarri, fotokopiak egin" direla azaldu digu Aitorrek.

"Liburutegian egunero gauza berak egiten dira, baina

ez dago beti lan kopuru berdina. Etortzen den jendearen araberako edo uzten diren liburuen arabera egiten da lan," azpimarratu du Izaskunek.

Beraz, Aitorren lanak ere egunegun egun aldatzen direla azaldu digu. "Lehen orduetan hamaikak arte lan finkoak ditu. Era honetara, iristerako egunkariak prest ditut, etab. Gero beharrez araberako lanak ematen dizkiogu. Nik askotan ezin dut liburu dendara joan eta bere baldintzen duto liburuen zerrandarekin edo eskolatera zerbitu eraman behar dugunean ere Aitor doa".

Izaskunek adierazi digunez, "Hasieratik lan batzuk genituen pentsatuak, baina bere ahalbideak ikusi eta pixkanaka lan gehiago ematen zuten. Hasieran ez zitzaizkion otu liburu dendara joaten lagundu ahal zuela. Honetaz gain, guretzat garrantzitsua izango den zerbitu egiten ari da, DVDak alfabetikoki jar-tzen".

Hezitzaileen lana ere aipatu du Izaskunek, "Esterrek lan handia egiten du, guri galdetzen digu Aitorrek zer egiten behar duen eta berak irakasten dio. Bere metodoak ditu gauzak irakastea eta pazientzia oso egiten du. Guk ez dugu hainbesteko denborarik zereginak irakastea".

### Lan eta lan

Udaleko Kontu-hartze sailan ere oso pozik daude Amaia Carcamo egiten duen lanarekin.

Amaia San Pedro egun bezperan hasi zen lanean. "Berez, uztailaren 1ean hasi behar zen, baina San Pedro egun bezperan langileentzako luntxa dagoenez lankideak ezagutzeko aukera ederra zela pentsatu genuen," azaldu digu Aitor Ariztegi kontu-hartze sailako arduradunak.

Aurretik bi urte egin ditu Easo institutuan administrari laguntzaile lanak egiten. "Eta horrek animatu gintuen Amaia ekartzera," aipatu du Axunek.

Ordenagailua, karpetak izendatzeko dimoa,... ditu bere mahai gainean. Amaia oso egokitu da lanera eta horren seinale jarraipen prozesuan dagoela da, "irailan joan zen bere hezitzailea".

Kontu-hartze sailako administrari laguntzaileen lana arintzeko dago Amaia. "Karpetak prestatu, premia duten dokumentuak arribatu, paperak suntsitu, espedienteak ordenagailuan sartu eta bankuen laburpenak orde-nen jarri," dira bere zereginak Amaia berak azaldu digunez eta lan eta lan dabilera ere onartu du.

"Bere ezagutzak zereginetara egokitu ditugu. Berak buleta bat eta hasieratik bere laguntzailearekin egunero egongo zuten zereginak finkatu genituen. Izan ere, azaldu zigutenez, inprobisazioa ez dute ongi eramanen," adierazi du Axunek eta bere lana noiz-behinka gainbegiratzeko dutela ere dio.

Gainera, astelehen arratsaldetan errefuertzat saioa duela aipatu digu Amaiak. "Zailtasunak sor ditzaketen eginkizunak lantzeko da. Esate baterako, eskutitzak baldizko probintziak, hiriak, posta kodeak... Amaiak arazoa zuela ikusi genuen eta hori lantzen du," azaldu du Axunek.

"Egin duen lana oso ongi baloratu behar dugu. Beretzat oso positiboa da, lan inguru normalizatu batean dagoelako eta guretzat ere positiboa da laguntzeko bi esku gehiago direlako. Gainera, gauza asko ikasten ditugu," azpimarratu du Kontu-hartze sailako arduradunak.



Amaia Carcamo ederki moldatzen da ordenagailu, karpetak eta eskutitzekin. Kontu-hartze sailan lan ederra egiten ari da.

## FUTBOLA

# Texasek 1-4 galdu du Eas 08ren aurka

Ostadarren Infantil Txiki taldeak 0-6 galdu du Realaren aurka, ausardia handiz jokatuta

**Eregionalen 1. mailan Texas Lasartearrak galdu egin zuen larunbat arratsaldean Michelinen. Lehen zati kaxkarrak bukaerako emaitza baldintzatu zuen. Ostadarren Infantil Txiki taldeak ere ezin izan zuen Real Sociedad handiaren indar erakustaldiaren aurrean ezertxo ere egin. Hala ere, partida lehen zatian erabaki bazen ere, bigarren zatian borrokan jarraitzeko adorea izan zuten gaztetxoek.**

## TXINTXARRI

**T**exas Lasartearra ez dago momentu gozoenean. Berriki Ostadarren aurkako derbia galduta, asteburu honetan ere porrotaren garritza dastatzea egokitu zaie.

Eas 08ren aurka Michelinen jokaturako partida 1-4 galdu zuten txuri-urdinek. Gol guztiak lehen zatian sartu zituzten. Azpimarratzekoa izan zen partidari eman zioten hasiera partala.

Norgehiagoka hasi orduko bi gol atzetik zen Texas. Lehen zatiko 25. minutuan ordea, Javi Torresen zuzeneko falta jaurtiketa baten bidez aldea laburtu eta 1-2 ipini zuten markagailuan.

Handik aurrera partidaren erritmoa Eas 08k eraman zuen eta beste bi gol sartu zituzkion etxeko taldeari. 1. zentzu guztiaren hobeak izan ziren larunbateko partidari.

Bigarren zatian hobeto jokatu zuten arren, Texaseko

jokalariek ezin izan zuten markagailua irauli.

"Fisikoki asko daukagu hobetzeko, abiaduraren alorrean gehienbat. Taktikoki ere hutsak egin ditugu eta gure bizkarretik abaguneak sortzeko erabili dituzte aurkariek. Dena den, hurrengo astean Herrerako Asoleus jasoko dugu Michelinen eta beste itxura bat ematen saiatuko gara, puntuak behar ditugu eta", adierazi zuen Alain Noriega prestatzaileetako batek. Entrenatzaile lanetan Txema Encinas aritzen da.

## Reala, aurkari handiegia

Reala ahalguztidunaren bisita jaso zuen Ostadarreko infantil txiki taldeak larunbat goizean Michelinen.

Emaitzak dena esaten du, 0-6 irabazi zien Gipuzkoa mailako selekzio moduko bat den Realak.

Baloiairen atzetik korrika egitea tokatu zitzaizen batez ere Ostadarreko gaztetxoek. Aukera gutxi sortu zituzten,



Jokoa aukera bat edo beste sortu arren, Javi Torresen zuzeneko falta jaurtiketa baten bidez egin zuen gola Texasek.

baina behintzat borroka gogotik egin eta bigarren zatian lehen erdian bainao itxura txukunagoa eman zuten.

Izan ere, atsedenaldira 0-5eko emaitzarekin joan ziren. Baina atsedenaldira Jose Pikabea eta Mikel Aristondo entrenatzaileak euren mutilak motibatzen saiatu ziren, eta baita lortu ere.

Bigarren zatian gol bakarra sartu zien Realak, eta donostiarraren oldarraldiari eusteko gai izan ziren, ez da gutxi.

Pozik ziren Pikabea eta Aristondo prestatzaileak partida amaituta: "Bagenekien norgehiagoka honetan sufritzea tokatuko zitzaigula, baloiairen



Baloiairen atzetik korrika gogotik egin behar izan zuten Ostadarrekoek.

atzetik korrika egin beharko genuela, baina harro gaude gure mutilak egindako lanarekin, horrela jarraitu behar

dugu lanean eta hurrengo astean Beasainen zelaiari beste aukera bat izango dugu".

## JUDOAK

## LOKEko judokak hasi dira lehen

**L**OKEko judokak denboraldiko lehen lehiaketak izan dituzte aste hauetan. Asier Sagasti seniorra Iruñean eta Fermín Balda eta Oscar Garrido Vigon izan dira lehen.

Urriaren 26an, LOKEko Asier Sagasti judokak Iruñean XX. San Fermín nazioarteko torneoan parte hartu zuten. Senior mailan sortu berri den Espainiako Koparako baloiagari zen proba honetan 90 kilo azpiko mailan Sagastik bosgarren postua eskuratu zuen.

Gorka Aristegik LOKEko entrenatzaileak aipatu duenez, Sagastik bere lehen borroka galdu zuen Giorgio Nadirradze valentziarraren aurka. Bigarren aukeran aldiz, ez zuen hutsik egin. Ancin eta Monreal nafarrak garaitu

zituen eta hirugarren posturako borrokan egotea lortu zuen. Tamalez, honetan Manero valentziarraren aurka galdu eta ezin izan zen lehiaketako podiumean egon.

Hala ere, LOKEko entrenatzailea pozik agertu da lortutako emaitzarekin.

## Kadeteak Vigon

Bestalde, urriaren 12 eta 13an Fermín Balda eta Oscar Garrido kadeteek Espainiako kopako Vigoko txapelketan parte hartu zuten.

Fermín Baldak 9. postua lortu zuen. Gorka Aristegik azaldu digunez, lehiaketa nagusian lehengo borroka galdu zuen eta bigarren aukeran, berriz, borroka bat irabazi eta bestean kaleratua izan zen.



Sagasti lehiaketa baino lehen.

Oscar Garridok ez zuen zorte onik izan. Lehen borroka aleman baten aurka izan zuen eta ezin izan zuen garaitu. Bigarren aukeran ere lehengoan etxera bidali zuten.

## LABURRAK

## Txirringa eskola kirola saioak

BuruntzAzpi Txirringulardi Eskolak Eskola kirola denboraldi berriari ekingo die hurrengo larunbatean, azaroak 9an, Atso-bakarreko parkean.

Kirol jarduerak hau alebin maila, 2003-2002 urteak, eta infantil mailan, 2001-2000 urteetan jaiotako kirolarietara mugatua dagola jakitera eman du eskolak.

Saioak azarora, abendua, apirila eta maiatzeko larunbatean izango dira. Beti ere, aurreko ostirala jai eguna ez bada, orduan ez da eskolarik izango.

Ordutegiari dagokionez, goizeko 11:00etatik 12:00etara izango dira saioak.

Jarduera honi buruz informazio gehiago nahi duenak, buruntzazpi@gmail.com helbidera mezua bidaliz eskuratu ahaliko du.

## Ostadar SKT-k bolariak behar ditu

Ostadar SKT-ko bola-joko lagunek bolariak behar dituzte. 2013-2014 denboraldi amaieran Eskolarik Herririk txapelketan izango da Lasarte-Orian eta gure herrian taldea osatu nahi dute honetan parte hartzeko.

Bola-joko taldeak herritarrik animatu nahi ditu bola-jokoa parte hartzera. Interesa duenak kirol gumeko bolatokia hirbultu daiteke larunbatean goizeko 11:00etatik 12:00etara.

## — Agenda —

Osteguna 7, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxean



### Osasunean eta gaixotasunean...

Okendo Zinema taldearen eskutik, aste honetan "Amour" filma ikusi ahaliko da. Georges eta Anne laurogehi urteko bikote erretiratua da. Annek bihotzeko bat du eta gorpuzteko aldeetako bat paralizatua geratu zaio. Egoera horrek bikotean duen eragina erakusten du Michael Hanekenen filmak. Hainbat sari eskuratu ditu horien artean, atzerriko film onenaren Oscar saria edo Cannesko Urrezko Palma. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

gozatzeo aukera izango da. Sarrera, 3 euro. 16 urte azpikoek doan.



### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 5, 19:00etan

Xabier Mendiarez kirolpraktikoak bizkar hezurrairen egoerak gure osasunean izan dezaketen eragina aztertu eta honi irtenbidea nola eman azalduko du.

VILLA MIRENTXU

Asteazkena 6, 19:00etan

Lorea Agirre antropologoaren "Nor izateko: Kulturgingtza, Herria eraikitze-ko eta gozatzeo bidea" hitzaldia.

### Bakarriketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 9, 00:00etan

"El txou de Patxi" umorezko bakarriketa izango da. Gaztelaniaz.

### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 12, 18:00etan

Pello Añorgak ipuinen mundua hurbilduko die 4, 5 eta 6 urteko haurrei.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Azaroan zehar

"Euskal Jaiek" argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

## Lasarte-Oria

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 10, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Zipi y Zape y el club de las canicas" filma ikusi ahaliko dute gaztetxoek. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz



Igandea 10, 19:30ean

Helduei zuzendutako zinea, "Amour" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Okendo Zinema Taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

### Musika

ZULO ARETOA

Osteguna 7,

23:00ean

"GRRZZZ" eta "Dk Dance" taldeen emanaldia izango da.

Ostirala 8, 23:00ean

"Los Gandules" taldeak bere azken



diska aurkeztuko du. Ondoren, "Sugar

devils" dj-aren saioa

Larunbata 9, 23:00ean

"The Growlers", "Tomorrows Tulips" eta "Kokoshca" taldeen kontzertua. Ondoren, "Fiesta Ayo Silver" dj-aren saioa.

ORBELA BELARDENDA

Ostirala 08, 20:00etan

"Soul Kitchen" taldearen soul eta funk doinuak entzungai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 9, 19:00etan

Lasarte-Oriako Akordeoi jaialdiaz

## — Herritarren txokoa —

### 63an jaiotako enafaria

1963an jaiotako enafaria egingo da Dana Onan azaroaren 16an. Hitzordua 20:00etan da Okendo plazan pote bat hartzeko edo 21:00etan jate-txean. Menua 36 eurotakoa da eta Euskadiko kutxan sartu beharko da dirua egun hori baino lehen. Honako kontu zenbakian 3035 0036 17 0360084931.

Harremanetarako 696 914 566 edo 620300579 zenbakietara deituta.

### 62an jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasartearentzat afari bat antolatuta da azaroaren 16rako, larunbata, Zaldua jate-txean. Interesetako 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 9rako, honako kontu korronte zenbakian, 3035 0036 17 0361131315.

Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu).

### Usurbilgo Lanbide eskolako titulak

Usurbilgo Lanbide eskolak jakin arazten du, 2012 urtean erdimaila eta goi mailako ikastaroak amaitu zituzten

ikasleek haien tituluak jasotzera hurbildu daitezke eskolara. Tituluak Lanbide eskolako bulegoan jasoko dira, goizetan 9:00etatik 14:00etara.

### Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten die Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela dagoeneko.

Hauk eskuratzeko, elkarteko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira interesatuak.

### Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entsueguak

Alboka abesbatzak jakin arazten du Alboka Txiki abesbatza lanean ari dela. Entseguak asteartean arratsaldeko 18:00etan dira Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan.

Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gazte txokoak animatu nahi ditu entsuegutara hurbildu eta probatzera.

Bestalde, helduen abesbatzak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entsueguak.

## — Hemeroteka —

### Duela 1082 ale

"Caddies Club"-eko lagunak izan genituen 1995eko urriko TXINTXARRI aldizkarian. Klubaren lehen pausako azaldu eta egiten zituzten txapelketen berri ematen zen.

Gure herrian golfarekiko lotura handia zegoela eta, kirol honetako zaletuek 1992an golf-taldea sortu zutela zioten. Era berean, hiru urtetan 118 kide izatera iritsi zirela azaltzen zen. Lasarte-Oriako lurretan golf-zelairik ez dagoenez, Basozabalen jokatzen zutela ere aipatzarazten da artikuluan.

1995ean elkarteko idazkaria zenak Gonzalok "herri mailan dagoen zaletasuna ikusirik, asanblea orokor bat deitu genuen eta 1992ko abuztuaren 12an l. masterra egin genuen, bertan 13 jokalarik profesionalak eta 43 amateurrek parte hartu zuten, guztiak lasarteoriarrak" azaltzen zuen artikuluan.

Txapelketaren arrakasta ikusita kluba eratzeko pentsatu zuten eta 1994ko urtarrilean federatu zen Caddies Cluba. Honela, 1995ko urriaren 12an La Nivelletan egindako txapelketan 80 jokalarik parte hartu zuten.

"Aipatzekoa da txapelketen inguruan sortzen den giroa", adierazten zuen Gonzalok. Izan ere, inguruan egiten dituen txapelketaz gain, taldeak lau txapelketa antolatzen zituela ere aipatzen zuen artikuluan: Udaberriko, klubaren txapelketa soziala, udazkeneko masterra eta gabonetakoa. Haue-tan, parte hartzaile guztientzat sariak zeudela aipatzen zuen.



**Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

